

SARRERA

Gure taldea Iratxe Valle, Paula Lozano, Izaskun Martinez de Ilarduya, Alaia Bajon eta Adriana Arobres osatzen dugu. Gaur egun, gizartean asetu gabe dauden behar batzuk ikusten dira. Hori aldatzeko helburuz proiektu bat aurrera eramán izan nahi dugu. Guk sortutako proiektua aplikazio on-line bat da ikusmen-urritasuna duten pertsonen erostetarako modu azkarrago eta errazago batean egin ahal izateko. Izan ere, mugikorrean deskargatuta izango duten aplikazio batean bilatzen ari diren produktua supermerkatuan non kokatuta dagoen eta produktuaren ezaugarriak esango dizkie, hala nola, prezioa, marka, glutena duen edo ez etab. Beraz, maps moduko aplikazio bat izango da, baina kasu honetan soilik supermerkatuetan erabiltzeko. Aipatu beharra dago, ikusmen-urritasuna duten pertsonentzat bideratuta egon arren, edozein pertsona erabili dezakela.

Ilido beretik, gure ingurunean ezaugarri horiek dituen produktu bakarra da, hori dela eta, aurrera eramatea erentagarria izan daitezkeela uste dugu. Dena den, gure aplikazioa martxan jarri ahal izateko eta benetan errentagarria izateko supermerkatu ezbedinekin hitzarmena egitea beharrezkoa izango litzateke. Horretaz gain, produktuen datu base bat eskuratu beharko dugu produktuen ezaugarriak txertatu ahal izateko.

